

2015-12-11 OSTIRALA
42. ZENBAKIA
URTEAN 50 EURO
WWW.ALEA.EUS

SORMENA, ESKU ARTEAN

Euskal Buztingintza Museoa Legutian

"Ez dago edukien eztabaida politikorik"

Asier Etxenike, Aztikerreko koordinatzailea

Basoa ikasgela

Umeak naturan hezteko proiektua Ozetan



ALEA

arabako aldizkaria

bildu **ERABAKI***ra*

ABENDUAK 17 GASTEIZ

ARABAKO EKITALDI NAGUSIA

19:00 EUROPA JAUREGIA

*Iker Urbina, Lorena Lopez de Lacalle,
Pablo Gorostiaga eta Izar Mendiguren*



eman botoa
ehbildu



Alea

42. zk.

Azaleko argazkia:
Mirian Biteri



HARPIDETU ZAITEZ

ALEA astero etxean jaso nahi baduzu, harpidetu zaitez. 50 euroren truke, 44 ale jasoko dituzu urtean.

www.alea.eus

- 4 Araba, abenduaren 20ko hauteskundeei begira.
- 8 Asier Etxenike soziologoarekin hauteskundeez solasean.
- 10 Iritzia: Iñaki Larrañaga, Irati Iciar, Itsasegia.

ARABAKO KUADRILLAK

- 12 Gasteiz: 'Mazoka' marrazki azoka ospatuko dute asteburuan.
- 14 Aiara: Laudioko meskitan jazarpenak salatu dituzte.
- 15 Gorbeialdea: bidegorriak Legutioko herri guztiak lotuko ditu.
- 16 Lautada: Plisti-Plasta proiektua, haurrak basoan hazteko.
- 18 Añana: uholdeei aurre egiteko, Trespondeko zubia garbi.
- 19 Mendialdea: Biarra elkarte, Urbiso euskalduntzeko.
- 20 Trebiñu: Lehen Hezkuntza eskaini nahi du ikastolak.
- 21 Arabako Errioxa: Disko eta Liburu Azoka, "arrakastatsu".

HAMAIIKA SALTA

- 22 Eskolatik eta etxetik harago, umeak euskalduntzeko gakoak.
- 24 Blanka Gomez de Segura buzingileari elkarriketa.
- 28 Postontzia eta zozketak.
- 29 Denbora-pasak.
- 30 Agenda.



Argitaratzailea
Arabako Alea Komunikazio Taldea S.L.

Zuzendaria
Aritz Martínez de Luna Urzelai

Erredakzioa
Anakoz Amenabar
Itsaso Estarrona Elizondo
Mirian Biteri

Komertziala
Erlantz Anda

Denbora pasak
Bagabiga

Inprenta
Bidasoa inprimatzeko zentroa

Banaketa
Bidera zerbitzuak

EGOITZA NAGUSIA
Arabako Alea Komunikazio Taldea S.L.
Eskola kalea, 10. 13. bulegoa,
01001. Vitoria-Gasteiz, Araba
Tel.: 945 71 60 09
info@alea.eus

Erredakzioa
erredakzioa@alea.eus

Harpidetza
harpidetza@alea.eus

Publizitatea
publizitatea@alea.eus
695 63 28 62

Lege Gordailua: VI-32-2015
ISSN: 2386-8961

Tirada: 2.100 ale

Bultzatzaileak:



goiena berria
KOMUNIKAZIO TALDEA

Laguntzaileak:

www.aiaraldeia.eus

hirinet



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua

Asteko kolaboratzaileak: Aitor Alvarez, Iñaki Larrañaga, Irati Iciar, Iker Etzaniz eta Estitxu Ugarte.

ALEA ez du bere gain hartzen IRITZIA sailean, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileak, adierazitako iritzien erantzukizunik.

Arabatik Madrilera

Espainiako Kongresurako lau ordezkari aukeratuko dituzte arabarrek abenduaren 20an; inkesten arabera, PPK, EH Bilduk eta EAJk ordezkari bana lortuko dute; laugarrena Podemosek eskura lezake, PSEren kaltetan. **ITSASO ESTARRONA** GASTEIZ

Indar politiko berriek inkognitak ekarri dituzte hauteskunde lehiara. Lehen aldiz aurkeztuko dira Podemos eta Ciudadanos Espainiako Kongresurako eta Senaturako hauteskundeetara datorren abenduaren 20an (igandea), eta ezezagunak dira mapa politikoan eragin ditzaketen aldaketak. Araban, Podemosek gaur egun PSEk duen ordezkaria eskura lezake, Eusko Jaurlaritzaren Sozio-metroa eta Espainiako Ikerketa Soziologikoetarako Institutuaren (CIS) arabera.

Espainiako Kongresuak dituen 350 ordezkariarik lau aukeratuko dituzte arabarrek, eserlekuak banatzeko indarrean dagoen sistema proportzionalaren ondorioz. Oso banatuta egon ohi dira botoak lurralde honetan eta, iragarpen guztien arabera, lau alderdik ordezkari bana

lortuko dute Madrilén datorren legegintzaldian.

Duela lau urteko hauteskunde orokorretan bezala, ordezkariak lortuko lukete PPK, EAJk eta EH Bilduk (2011n, Amaiur). Aldiz, PSEren hautagaia, Javier Lasarte, kolokan dago, Podemos alderdiak sozialistek baino boto gehiago lor ditzakeelako datorren astean, Equoko lider Juanxo Lopez de Uralde donostiarrak diputatu bihurtuz, Pablo Iglesiasen zuzendaritzak Arabarako hautagai ezarri ondoren.

Ez Albert Rivera ikur duen Ciudadanosek, ezta UPyDk ere, ez lukete ordezkariak arabarrik lortuko. Gauza bera gertatuko litzaioke Orain

Batera indarrari ere (Ezker Anitza), Podemosek elkarrekin aurkeztea baztertu ondoren.

Maroto, Kongresura?

Arabako PPko zerrendaburu Alfonso Alonso, beraz, diputatu arituko da berriro ere; zerrendan bigarre-

nak, Javier Maroto Gasteizko alkate ohiak, ez dauka eserlekua lortzeko aukera handirik, baina datorren urtean Alonso lehendakari gai aurkeztuz

gero –ez du aukera baztertu– berak har lezake lekukoa Madrilén, Gasteizko zinegotzi eta legebiltzarkide karguekin egingo lukeena argitzeke.

Jeltzaleen aldetik, Emilio Ola-barriak Gorteak utziko ditu hogei

Ciudadanosek foru hauteskundeetan baino boto gehiago lor ditzake, baina Araban ordezkariarik ez



Plaza San Martín, 6
01009 Vitoria-Gasteiz
☎ 945 004 422
www.gunegasteiz.com

HURRENGO IKASTAROAK

GIZONAK HARREMANETAN > Abenduak 20

HEZIKETA SOMATIKOAK > Abenduak 26

TDH GORPUTZA HIZKETAN > Urtarrilak 31

HAURDUNALDI ETA ERDITZE KONTZIENTEA > Ostegunero urtarriletik otsailera

EDUCAR SIN CASTIGOS NI RECOMPENSAS > Martxoak 5 eta 6

Aurpegi zahar eta berriak

Diputatu izandakoak eta Gorte Nagusietara estrainekoz aurkeztuko direnak daude Kongresurako hauteskundeen Arabako zerrendetan, alderdi guztietan gizonezkoak nagusi. **ITSASO ESTARRONA** GASTEIZ



ALFONSO ALONSO @AlfonsoAlonsoPP
PP

Gaur egun Osasun ministro eta Euskadiko PPko buru –Arantza Quirogaren dimisioaz geroztik–, Espainiako Kongresurako popularren zerrendaburu izango da berriz ere Alfonso Alonso Araban; zerrendan bigarren tokia Javier Marotok beteko du, Madrilen aulkia lortzeko auke-
ra gutxirekin.



MIKEL LEGARDA @MikelLegarda
EAJ-PNV

Kongresuan 25 urte baino gehiago eman ondoren, politikaren lehenengo lerroa utziko du Emilio Olabarria jeltzaleak. Haren orde, Mikel Legardak hartuko du lekukoa. Segurtasun sailburuorde izan zen Legarda, Javier Balza Herrizaingo sailburu izandako garaian. Autonomia Garapenerako zuzendari ere izan da.



IKER URBINA @ikerurbina1
EH BILDU

Duela lau urte Kongresuan diputatu da Iker Urbina abokatu gasteiztarra, Sortu alderdia legalizatu ondoren Eusko Alkartasuna, Alternatiba eta Aralarrekin batera osatutako Amaiur koalizioako buru izan baitzen 2011n Araban. Oraingoan EH Bilduren atarkepean aurkeztuko da abenduaren 20ko hauteskundeetara.



JUANTXO LOPEZ DE URALDE @juralde
PODEMOS

Madrilgo zuzendaritzak erabakita, Juantxo Lopez de Uralde Equo-ko liderra izango da Podemos alderdiko Arabako zerrendaburua. Erabakiak krisia eragin zuen alderdian, Roberto Uriarte Euskadiko idazkari orokor ohiak Bizkairako nahi zuelako Uralderen hautagaitza, zirkuluek erabakitakoaren kontra. Dimisioa eman zuen Uriartek.



JAVIER LASARTE @LasarteJavier
PSE

Ordezkaritza lortuz gero, Ramon Jauregiren lekua hartuko du Javier Lasartek Madrilen. Kongresuan diputatu izandakoa da, 2008-2011 lege-gintzaldian. Gaur egun, Arabako Diputazioko Enplegu zerbitzuko burua da. Bere aulkia kolokan dago. Jaurlaritzaren azken soziometroaren arabera, PSE ordezkariarik gabe geratu daiteke Araban.



CARLOS TEJERIZO
UNIDAD POPULAR-ORAIN BATERA (EZKER ANITZA)

Carlos Tejerizo arkeologo autonomoa izango da Orain Batera-Ezker Anitzaren hautagaitzako zerrendaburua.

Beste batzuk: Rodrigo Zamora (Ciudadanos), Rene Rodriguez (UPyD), Libertad Navarra, Ongi Etorri, Aulki zuriak, PACMA.

ta bost urteko ibilbidearen ondoren, eta Javier Balzarekin batera Segur-tasun Sailburuorde izandako Mikel Legardak ordezkatuko du Kongre-suan. EH Bilduren kasuan, Iker Urbina abokatu gasteiztarrek jarrai-tuko du diputatu lanetan, azken legegintzaldian Amaiur markarekin aritu eta gero.

PSEren gainbehera

Duela lau urteko hauteskunde oro-korretan, PPK lortu zuen boto gehien Araban (%27); bigarren, sozialistak geratu ziren (%23), Amaiur hiru-garren (%19,3) eta, oso gertutik, EAJ laugarren (%19). Ikusteko dago EAJ eta EH Bilduren boto portzen-tajea (lehia estua izango da, inkes-ten arabera), baina argia dirudi



AIARALDEA

Garuña, Foronda, Trebiñu eta AHT dira hauteskunde hauetako gai pisutsuenetako batzuk

sozialistek ez dutela, 2011n bezala, bigarren postua lortuko. Hautes-kunde orokor horiekin alderatuta, aurtengo foru-bozetan sozialistak bosgarren postura jaitsi ziren, botoen erdia galduta (%11) eta Pablo Igle-siasen alderdiaren atzetik geratuz (%14).

Ikusteko dago ere Ciudadanosen eragina. Espainia mailan hirugarren indar izatera iritsi daitezkeen arren –governua osatzeko erabakigarria izatea lortuta–, sorpresak ekar ditzake Albert Riveraren markak Araban: maiatzean txartelen %3 lortu zuen lurraldean, baina inkestek iguera iragartzen diote (%7). Edonola ere, zenbateko hori ez litzateke nahikoa izango zerrendaburu arabarrak, Rodrigo Zamorak, eserlekua lortze-ko.

Datak berak bozetan eragina izan dezake: oposizioak gogor kri-tikatu du Mariano Rajoy presiden-tea, abenduaren 20a aukeratzeagatik. Izan ere, Gabonen atarian jen-de gutxiagok eman dezake botoa, eta horrek, orokorrean, boto leia-lari egin diezaioke mesede, aldake-tak eragin ditzaketen zalantzatiak etxean geratuz gero.

Senatarigaietan, emakumeak

Kongresurako hautagaien artean, zerrendaburu guztiak –alegia, hau-tatuak izateko aukerak dituztenak– gizonezkoak dira, alderdi gehienek gizon eta emakumeak tartekatzen dituzten kremailera-zerrendak osatu dituzten arren, PP eta Ciudadanos izan ezik. Senaturako, pareka-tuagoa dago zerrendaburuen gene-roa: Iñaki Oiarzabal (PP), Almudena Otaola (EAJ), Lorena Lopez de Lacalle (EH Bildu), Elvira Garcia (Podemos) eta Julia Liberal (PSE) dira aukeratuak izateko auke-ra gehien dituzten senatarigaiak.

Araba Madrilera begira dago, Madrilen Arabarentzat erabaki garrantzitsuak har daitezkeelako. Hala, Espainiako gobernu berria eta Kongresuaren osaera erabaki-garriak izan daitezke hemen pisuz-koak diren gaietan: Trebiñuko auzia, Garuña zentral nuklearra berriro irekitzeko arriskua, Abiadura Han-diko Trenaren garapena, Foronda-ko aireportuaren etorkizuna, Frac-kingari begirako asmoak, Euska-diren estatus politikoa eta neurri ekonomikoak.




MONDRAGON
 UNIBERTSITATEA

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATE · ABENDUAK 12
LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

GOIERRI · URTARRILAK 21
OSTEGUNA, 17:30 / Aula Magna

ORONA IDEO · URTARRILAK 30
LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

OÑATI · ABENDUAK 12
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

BILBAO · ABENDUAK 17
OSTEGUNA, 18:00 / Aula Magna

BIDASOA · URTARRILAK 30
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA ·
 Basque Culinary Center

DONOSTIA · ABENDUAK 12
LARUNBATA, 10:30 / Auditorium

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI!

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

Martxel Garai
 myGade, 2.maila

#erronkarakoprest

Gabonetarako errezeta gozoak prestatu ditu Artepanek

Lehengairik onenekin eta modu artisaun egindako gozogintza-eskaintza zaindua aurkeztu du Artepanek: euskal turroia, likorezkoak, mantekatuak eta panettonea ditu prest Eguberrirako. ARTEPAN

Gabon zoriontsuak denoi! Gu horretan ari gara. Artepanen denbora asko darabagu egun hauek zoriontsu egiten saiatzen, gure erara: zuen mahaia Gabonetako produktu tradizionalaz betetzen.

Turroiak, mazapanak, almindrukoak, almendrazko mantekatuak, panettoneak... Egia esan produktuak oso lotuta daude Gabonekin; zuhaitza, jaiotza edo etxe guztietako senide jatun eta alaiak bezainbeste.

Ezin ditugu Gabonak gozokirik gabe irudikatu. Hori bai, joerak eta kontsumoa aldatuz doaz. Artepanen 25 urte daramatzagu Jesus Guridiko lantegian produktu tradizionalak prestatzen, baina errezetak, formatuak eta aurkezteko moduak eguneratzen ditugu.

Zer dira Gabonak guretzat? Bezeroekiko errespetu are handiagoa: izan ere, hartu-eman handia dugu haiekin, ahalegin bat egiten dute gure produktuak familia-otorduetarako erosiz eta guk ezin diegu hutsik egin.

Maitasuna, gure lantegietan erabiltzen dena, lehengai onenekin eta gure gozogileen errezetekin. Konfiantza, milaka gasteiztarrek guran daukatena, gure dendetatik erosketarekin pozik ateratzen direnean. Horretarako, aurten produktu-sorta txikiagoa eskainiko dugu, xehetasun guztiak hobeto zaindu ahal izateko. Jarraian aurkezten dizkizuegu gure proposamenak.

Xehetasun guztiak zaintzeko, aurten produktu-sorta txikiagoa osatu du Artepanek

ARTEPAN

Jesus Guridi 2.

01004 Vitoria-Gasteiz

945278888

facebook.com/artepanvitoriagasteiz



ARGAZKIAK: ARTEPAN

Koko-trufazko turroia

Kokoa eta txokolatea, turroi freskoa, fruta-usainez betea eta gure betiko trufa bezain krematsua. Ezberdina, ausarta... Harritu egingo zaitu.

Likorezkoak

Tradizioz jasotako espezialitatea, gure lantegian luxu kategoria jasotzen duena. Banan-banan eta eskuz eginda, txokolaterik onenaren zaporea likore mota ezberdinekin bustitzen da.

Gorringo turroiak

Mazapana eta gorringo txigortua; sinplearen sinplez magia berezi bat dauka. Klasikoetan klasikoena, almendra eta gorringoaren harmonia perfektua nabaritutako duzu.

Almendrazko mantekatuak

Asko daude, asko baino gehiago. Guk geurea gomendatzen dizugu; berezia eta pertsonala, gure gozogileen marka bereizgarria duena. Ez galdu aukera!

Euskal turroia

Txokolatea maite dutenentzat. Laranja zatiak, markona almendra, hurrak, intxaur espainiarrak, mahaspasa turkoak... Zapore nahaste atsegina, txokolatearen indarrak sendotuta.

Trufak

Gutxi dago esateko. Betikoak dira, urte osokoak, data hauetan ezinbestekoak. Naturalak, freskoak eta gehigarri zein kontserbagarririk gabeak. Txokolatezko mokadutxoak, betegarri ezberdinekin.

Panettonea

Artisau erara egindakoa, Arabako bakarra. Ama-ore hutsez hartitzea erronka handia da. Piergiorgio Giorilli maisuak irakatsi zigun egiten eta 40 urtez gordetako errezeta eman zigun. Elaborazio prozesua delikatu eta gaitza izanik ere, emaitza harrigarria lortzen da, usain eta zapore eztanda zoragarriko ogi gozoa eskuratzen baita, hartidura, gurin, zitriko eta bani-lla ukitua duena.

ASIER ETXENIKE

AZTIKERREKO KOORDINATZAILEA Lurralde mailan hauteskunde kanpaina "hotz" dabilen arren, estatu mailan hainbat aldaketa antzeman ditu Asier Etxenike soziologoak; hedabide nagusien eragina nabarmendu du oraingoan. **A. AMENABAR** GASTEIZ

"Estatuko eztabaidak hemen izan daitezkeenak ito ditu"

Euskal Herritik erreparatuta, Espainiako hauteskundeen osteko indarren banaketa garrantzitsua izango da, Asier Etxenikeren ustez (Orereta, 1979), zabaldu daitezkeen estatu egituraren inguruko prozesu edo eztabaidari dagokionez. Gako nagusietako bat Kataluniako emaitzak izango dira, estatu ikuspegi batetik eman daitezkeen urratsak zehazteko garaian. **Generalitateko presidentea aukeratzeko adostasunik ez egoteak baldintza ditzake hauteskundeak eta ondorengo prozesua? Mas presidente izendatzea ala ez?**

Hor tratatuta daude orain. Aurretik ere ikusi izan dugu halako fase bat Katalunian, bazirudiela prozesua bertan behera geratzen ari zela, jendearen aldetik hoztuta zegoela, politikoen arteko ika-miken ondorioz, baina gero berriro ere prozesu independentista agertu zen indartsu. Ez dakit oraingo ika-mikek zer punturaino baldintzatu dezaketen; badi-rudi prozesu sozial gisa oso potentia dela, eta ez dut uste pertsona bakar baten ondorioz prozesua bera gelditu daitekeenik, beste gauza bat da prozesuan lan egiten duten indar

horien arteko harremanak kaltetuak ateratzen diren ala ez, edo konfiantza horiek galtzen ateratzen baldin badira prozesua bera arriskuan egon daitekeen edo erritmoa galtzeko arriskuan behintzat.

Indarrez agertu dira Podemos eta Ciudadanos agertokira. Mobilizatu gabekoak mugiaraziko dituela uste duzu?

"Audientzien politika" delakoa da berritasun nagusia, pertsona bat eta baita alderdi bat ere elektoralki posizio batean jartzeko gaitasuna dutelako hedabide nagusiek, eta kasu honetan estatu bat gobernatzea jartzeko atakan, ia. Kronogra-

"Kronogramari begira, badirudi Ciudadanos iritsiko dela punturik gorenean bozen atarira"

ma batetik begiratuta, badi-rudi Ciudadanos iritsiko dela bere punturik gorenean hauteskundeen atarira eta Podemos, aldiz, apur bat ahulduta, baita eurek hartutako erabaki batzuegatik. Hasierako

diskurtsotik aldentu egin da Podemos, herri mugimenduei lotutako diskurtsotik, eta hortik aldentu den heinean hasieran zuten indar hori galdu du, nolabait bi indar mediatiko nagusien laguntzaz, Ciudadanosek hartu duen espazio hori.

Proposamen bat izan zen Euskal Herrian, ezkerre batzearena, eta ez zuen aurrera egin. Norbait kalte egin diezaioke horrek?

Hasiera batean eman zezakeen baietz, Podemos indartsu batekin bai Euskal Herrian eta baita Katalunian ere bertako ezker independentistei begira izan zitekeela halako indargabetze bat, boto eraginkorraren ikuspuntutik Podemos indartzea estrategikoa izan zitekeelako jende askorentzat. Baina gaur egun daukaten indarraren pertzepzioetik, nik uste dut asko ahuldu egin dela; egongo da ziur aski EH Bilduren jendea oraingoan Podemos edo Ezker Anitza bozkatu ahal duena PP kentzeko, baina aukera hori nik uste asko makaldu dela.

Azken hilabeteetan EAJk erakutsi du Espainiarekin duen harremana "haustearen" kontrakoa dela. Nola eragin diezaioke horrek?

Haiek euren politika instituziona-



letik begiratuta egonkortasuna da nolabait saltzen dutena. Haustura bat arrisku baten gisan ikusten dute, abentura baten gisan, Ibarretxeren garaian ikusi zuten moduan, eta ez dira oso abenturazaleak, eta beste modu batera bideratzen dute hori, bestelako prozesu negoziatu baten alde. Horregatik hauteskunde hauen atarian beraien aldetik zailtasun bat ikusten dut euren mezua saltzeko orduan; Rajoy eta PPren jarrera erabat itxia izan da azken urteetan, negoziazioei dago-kionez, eta apenas uste dut kasu honetan balantze onik egin dezake-tenik. EAJren aldetik, zentzu horre-tan, berrikuntza falta somatzen dut. **Kanpaina hotza izaten ari da Araban.**

Hotza eta luzea. Batetik estatuko alderdiek urte bat baino gehiago daramatelako kanpainan. Eta esta-tuko eztabaidak hemen izan daitez-keenak ito ditu; batetik hautagaiak ezezagunak dira neurri handi batean eta, bestetik, Madrilen egiten duten

papera saltzeko zaila dute. Badiru-di ez dutela lortzen proiektio nahi-korik benetan interesa piztu eta eztabaidak hemengo parametroan emateko, eta alde horretatik nahiko hotz, bai. Estatu mailan, behintzat, gauza berri batzuk agertu dira, debate berriak direla edo hautagai berriak direla.

Eta debateekin batera ezohikoak diren agerraldiak izan dira hainbat saiotan. Beharrezkoak al dira horiek?

Badu halako kontraesan bat. Gero eta agerraldi amerikarragoak dira, marketin politikoak indar berezia hartuta eta, era berean, eduki poli-tikoetan husten ari dira. Hori, nire ustez, kalterako da, ez dagoelako edukien gaineko eztabaidarik edo formakuntzarik, eta bozka emate-rako garaian, neurri batean, infor-maziorik gabeko bozka delako. Alde ona da, bestetik, politika ari dela estilo horretan jende gehiagoren-gana iristen. Datuek erakusten dute-naren arabera, halere, parte-hartzea

ez da asko igoko; mobilizatutakoa jende berdina izango da baina ezta-baida politiko pobreago batekin, beraz balantze orokorra ez da ona. Rajoy beste hautagai nagusiekin ez agertzea ere adierazgarria da; ez dago konfrontazio ideologikorik eta norabide bakarreko mezuak entzu-tera behartzen gaituzte: mitinak.

.....

San Frantzisko Kalea, 2 · Gasteiz
www.farmaciapuente.com

IÑAKI LARRAÑAGA

KAZETARIA @InakiLarra



Ikasi bozkatzen

Albiste ona. Galdeketak antolatuko ditu Gasteizko Udalak, herritarren iritzia jaso eta horren arabera erabakiak hartzeko. Araudi zirriborro baten gainean lan egiten ari dira udal taldeak, Donostiakoa aintzat hartuta. Elkarleen parte hartzean sakondu baino lehen, eta behin betiko araudi gabe, galdegai bila

presaka hasi dira zinegotzi batzuk.

"Zeri buruz erabaki ahal eta nahi dugu gasteiztarrok? Jailetako egutegia?"

Zezenketak bai, zezenketak ez. Hori da udalbatzak bere egin duen lehenbiziko afera, PSEk proposatu eta EH Bilduren babesarekin aurrera aterata. Deiga-

rria da galdeketen gaia plazaratzeko orduan, originaltasun falta. Badakit galdeketa antolatzea ez dela sormenaren jaia, baina bitxia da auzi honek zenbateraino erakartzen duen.

Zeri buruz erabaki ahal dugun da hurrengo galdera. Ezin baitugu itxuraz Iberdrolako zikoitzekin kontraturik eten. Alferrik dugu Araka-ko okupazio militarren kontra bozkatu. Inondik inora ere ez dute Katedral Berria gizarte etxe bihurtuko. Tranbia Zabalganara luzatzea ere Jaurlaritzari dagokio. Zeri buruz erabaki ahal eta nahi dugu beraz gasteiztarrok? Abuztuko jaien egutegia? Errekaleorren etorkizuna? Batalla de Vitoria monumentua? Jakingo ote dugu tresna hau ganoraz erabiltzen eztabaida antzutan luzatu gabe? Galdeketa baten zurrumbiloa kudeatzen ikasteko behar gorria daukagu. Zezenketena, hasteko, ez da ideia txarra ere, pentsatu nuen. Irabaziko Fernandez zinegotziak kontra bozkatu zuen arte: "Animalien eskubideak ez dira bozkatzen. Bete egiten dira". Kontxo!.

IRATI ICIAR

UEU-KO LANGILEA @IratiIciar



Zertan eman duzu denbora?

Denbora mugatua da, horretaz guztiok gara kontziente, baina egunerokotasunerako "ahaztu" egiten dugu. Mugatua izaterakoan aprobetxatu egin behar dugu, zerbaitetan eman, bestela 'gastatu' egiten da. Denboraren erabilera praktikoaren ideia hau ez dakit nondik datorkigun, baina aprobetxatu

egin behar dugula oso barneratuta daukagu, "ezer egin gabe" gauden tarte horien ondoren bertigoia sentitzera ino. Eta hala estresatzen gara.

"Zer egingo zenuke zure denbora berriz erabiltzeko aukera izango bazenu?"

Naturak ematen

dizkigun gaiak ere mugatuak dira. Petrolio, egurra, ura... dena amaitu daiteke eta, ondorioz, ahalik eta gehien birziklatzen saiatu behar gara. Plastikoa, beira, papera... erabili ondoren birrindu eta beste zerbait egiteko erabili daiteke, etengabeko erabilera gurpil batean sartuta. Arropa, konplementuak, altzariak... bigarren erabilera txanda bat eduki dezakete. Bigarren eskuko kotxeak, bigarren eskuko etxeak, bigarren eskuko liburuak...

Eta, bigarren eskuko denbora izango bagenu? Zer egingo zenuke, zure denbora birziklatu eta berriz erabiltzeko aukera izango bazenu? Edo, beste norbaitek erabili eta ondoren birziklatu duen denbora eskuratzeko aukera balego? Imajinatu zenbat denbora "irabaziko" genukeen: erosi ditugun liburu horiek guztiak irakurtzeko, ikusteke ditugun filma guztiak ikusteko... Berreskuratutako denbora izatean (ziurrenez erosi egin beharko genukeen) hobeto aprobetxatuko genuke?

BOZKA ITSASEGIAREN ZINTA



SAREAN

#Eztabaida

"Erabakigarria" izenondoa jarri zion La Sextak astelehenean lau presidentegairekin eskainitako eztabaidari; behin saioa amaituta, hasi dira eztabaidaren gaineko eztabaidak, datorren asteko hauteskundearen pil-pilean. **I. ESTARRONA** @itsasoestarrona GASTEIZ



Santi Leone @ororostorm

Pedro Sanchezen korbata nahiko polita da
#AldeOnakBilatzen



Paultxo @Paultxopower

Rajoy ez etortzearen azken aitzakia: Rajoy
feminista da eta Soraya bidali du.
#7DEIDebateDecisivo



Jone Etxebe TTIPez @JoneEtxeberria

Pentsioak: PPK kontratuen lehen hilabetea ez
kotizatzea proposatzen du, Riverak haur
gehiago izatea (ez enplegua)
#EzHankaEzBuru



Ane Irazabal @Anelrazabal

Adostasuna bakarrik #Daesh hitza
erabiltzeko. Exotikoa izango da...
#7DEIDebateDecisivo



Mikel Ruiz @Mikel_Gorri

Lotsagarrien artean lotsagarrienetakoa,
horrelako garrantzi politikoa duen eztabaida
bat kate pribatu baten egitea.
#7DEIDebateDecisivo



Hedoi Etxarte @hedoi_etxarte

Hauteskunde eztabaida batek sortzen duen
gauza interesgarri bakarra eztabaidaren
gaineko umorea bada: txarto. #Abenduak20

ASTEKO ARGAZKIA



EITB

HILDAKO BAT; SUHILTZAILEEN PARKEA, ITXITA

Asteartean, goizeko hiruretan, sutea piztu zen Arabako Tuesta herriko etxe batean: 93 urteko aita salbatu nahian, 62 urteko semea hil zen. Ordu horietan, itxita zegoen herriatik hiru kilometrora kokatuta

dagoen suhiltzaileen parkea. Hortaz, Gasteiztik (35 kilometro) eta Mirandatik (20 km) joan behar izan ziren larrialdi-zerbitzuak. Suhiltzaile parkeak antolatzeke moduaz eztabaida piztu da. **I. ESTARRONA**



Alexandre Fernandez, Marta C. Dehesa, Mikel Escalera eta Angel Maria Ramirez de Ganuza, Ilustrados elkarteak. | ITSASO ESTARRONA

Lehenengo marrazki azokak 55 ilustratzaile bilduko ditu

Ostiralean abiatuko dute 'Mazoka' Montehermosoko ur biltegian, Arabako Ilustrados elkarteak antolatuta

ITSASO ESTARRONA

GASTEIZ

Ilustrazioaren esparruan Gasteiz eta inguruko sortzaileek egiten duten lana ezagutarazteko, hiriko lehenengo marrazki azoka antolatu du Ilustrados elkarteak Montehermoso jauregiko ur biltegian, ostiraletik igandera bitartean. Mazoka izenarekin, 55 erakusmahai bilduko ditu, egileek eurek kudeatuta.

Askotariko formatutan eginiko sormen lanak erakutsiko dituzte "mazoka-

lariak", tartean akuarelak, serigrafiak, postalak, apaingarriak, panpinak eta jantziak. Emaizta horiez gain, bertaratutakoek artistak zuzenean lanean ikusi ahal izango dituzte. Dibupotea egiteko deia zabaldu dute ere: alegia, pintxo-potean inspiratuta, ilustrazioa ardatz izango duen dinamika, marrazkizale guztiei irekia.

Margoei oraindik errespetu handia dietenentzat, txoko bat presatuko dute, "marraztea-

ri beldurra galtzeko" proposamen eta jarduerekin. Kontzertuak, dantza eta

tailerrak antolatu dituzte era berean, baita Ilustramaton izeneko fotomaton berezia ere.

Ordutegia

Ostiralean: 18:00etatik 21:00etara.

Larunbatean: 11:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

Igandean: 11:00etatik 14:00etara.

Euskadin lehen

Gasteizkoa ez ezik, mota honetako Euskadiko lehen ilustrazio azoka izango da Mazoka. Iaz sortutako Ilustrados elkarteak kideen hitzetan, "ilustratzaile, marrazkilari eta artista bisualen lana ezagutarazi" nahi dute eta, aldi berean, Gasteiz ilustratzaileen esparruan erreferente bihurtu.

Bigarren eskuko jostailuak, Beningo eskola baten alde

Elkartasun azoka egingo dute Iradier Arenan, lantegi, ipuin-kontalari eta musika emankizunekin

I. ESTARRONA

GASTEIZ

Olentzerok aukera berezia izango du Gasteizen aste-buru honetan: Iradier Arenan bigarren eskuko jostailuen azoka ospatuko dute, Afrikako Benin Errepublikako eskola batentzat dirua biltzeko.

Gasteizko Udalak antolatuta, hainbat eragilek hartzen dute parte ekimenen: ludoteka eta ludo-klub sareak, zenbait parrokiak eta elkarte-laguntzaile batek –aurten bigarren aldiz Manuel Iradier talde afrikaniasta–. Larunbatera begira, Lehen Hezkuntza-



Bigarren eskuko jostailuak salduko dituzte larunbatean. | SERSO SAN VIATOR

ko hirugarren eta laugarren mailako ikasleek bildu dituzte jostailuak, baita ludoteketako gazteek ere. Zezen plazan jarriko dituzte salgai, eta lortutako dirua Benin herrialdeko Esteban de Sirarou eskolara bideratuko dute.

Ekimenaren bidez, haurrak "elkartasunean hezi" nahi dituzte antolatzaileek eta, horretarako, ikasgeletan gaia landu dute azken asteotan.

Goiz eta arratsalde

Azoka 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara egongo da irekita. Hitzordurako, hainbat proposamen prestatu dituzte: lepokoak, ilekor-dak eta hosto-bolak egiteko tailerrak, PlayMais jolasa, perkusio-afrikar saioa eta Boni Ofogo ipuin kontalariak kontatuko duen *Begia galdu zuen elefantea* kontakizuna.



I. ESTARRONA

IZOTZ PISTA, IREKITZEKO PREST

Gabonetako argiak behin piztuta eta Floridako jaiotza inauguratuta, izotz pista eta txirristaren txanda da: larunbatean

irekiko dituzte Andre Mari Zuriaren plazan, urtarilaren 6ra arte. Handik hamar egunera, hilaren 22an, Arabako abesbatzen emanaldiak hasiko dira, eta 26tik aurrera umeentzat emankizunak eskainiko dituzte Mendozorroztan eta hiriko gizarte-etxeetan.

Confecciones Pinedo, S.L. Euskal Jantziak

San Antonio, 11
Heracio Fournier, 15
GASTEIZ



www.confeccionespinedo.com



Laudioko komunitate musulmaneko kidea da Othman Alfredo Gomez-Cambroner Kortazar. | AIARALDEA.EUS

OTHMAN ALFREDO GOMEZ-CAMBRONERO

LAUDIOKO KOMUNITATE MUSULMANEKO KIDEA Herriko meskitan jazotako erasoak salatu ditu Gomez-Cambronerok (Bilbao, 1969) . AIARALDEA ERREDAKZIOA AMURRIO

"Gerra giroa ekarri nahi dute meskitara botoak lortzeko"

Zer gertatu da Laudioko komunitate musulmanaren inguruan egun hauetan?

Alde batetik, pertsona batek Islamaren eta musulmanon aurkako irainak eta mehatxuak egin zituen. Geroago, zaborra bota zuten meskitaren aurrean dagoen espaloian. Horrez gain, astelehenean eguerdian Guardia Zibilak kontrola egin zuen meskitaren inguruan hiru furgoneta-ekin eta sei agenterekin eta bertara joandakoak miatu zituen. Oso susmo txarra hartzen diogu gertatutakoari eta norbaitek Laudiotik kanpo gure gizartea zatitu eta gure auzokoen artean elkarrenganako beldurra sorrarazi nahi dituela ondorioz-

tatu dugu. Hauteskundee-tan bozak irabazteko gura gerra giroa ekartzen saiatzen ari direnei eskatu nahiko nieke Laudio eta gu bakean uzteko.

Zergatik piztu beldur hori?

Frantziako gertakarien harira, azken asteetan etengabeak izan dira Espainia-ko zenbait alderdik eta eragile politiko zein mediatikok (PP, Ciudadanos, El Correo...) gure interesekin zerikusirik ez duen gerraren alde zabaldutako mezuak. Horien arabera, oinarrizko eskubide zibilak premiaz bertan behera utzi behar dira, eta gaur egun beharizan gehien dituztenak (inguraldeetako auzo-koak, atzerritarrak, etor-kinak, errefuxiatuak, musulmanak...), salbuespen

egoeraren barruan sartu, herritarren benetako segur-tasunari lotutako inolako irizpidetan oinarritu gabe.

"Espainiako zenbait alderdik gerraren aldeko mezuak zabaltzen dituzte"

Testuinguruaren ondorioztat jo dituzu gertakariak?

Europar sektore politiko batzuek eta erabakigune politiko handiak –militarrak, ekonomikoak...– gerra eta izu giroa zabaltzen ari dira. Aintzat hartu behar da Europar asmoa ez dela politika soziala aldatzea krisialdi ekonomikoari aurre egiteko.

Herritar ugari baztertu dituzte aberatsen aldeko politikak egin dituztelako. Bestalde, gai geoestrategikoak lantzen dituzten esparruetan Ekialde Hurbilean esku hartzeko gogo dago, eta horretarako gerra giroa piztu nahi dute. Elkarbizitza eta bake giroa apurtzen duen dinamika gerrazalea ez da batere egokia gizarte oparoa antolatzeko.

Zein da bidea zure ustez?

Alde batetik, auzokoen arteko harremanak sendotzea. Horregatik garrantzitsua da Udalak, Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak politika orokorrak antolatzea ekintza zehatzen bidez bizikidetzat sustatzeko. Laudion, 18.000 biztanleko herri batean, ez da gertatu behar pertsonen arteko mesfidantzarik egoitea jatorri ezberdinak izateagatik. Gauza asko galtzen ari dira elkar ez eza-gutzeagatik.

Pariseko gertakarietara buruz zer aipatu duzue komunitate musulmanean?

Bakoitzak bere iritzia dauka, baina oro har jendea atsekabetuta dago. Islamean errugabe bat hiltzea gizadi osoa hiltzea bezalako ekintza da. Ustez musulmanen defentsarako diren ekintza horiek oso susmagarriak dira; azkenekoa zein Charlie Heb-doren egoitzan gertatutakoa. Estatu frantsesak berandu hartu du Siriako gerraren trena. Boteregune batzuek ekintza horiek aprobetxatu dituzte gizar-teko oposizioari gabe gerran sartzeko. Espainia-ko gobernua munduko boteretsuen alde agertu da, haien estrategia politiko-militarraren morroi bihurtuta. Ez dugu gerraren aldeko inolako dinamika politikotan gure herria sartuta ikusi nahi.

Legutioko herri guztiak bidegorriaren bidez lotzeko lehen urratsa egin dute

Saindurdi auzotik Larrabearaino doazen bideak oinezkoentzako eta bizikletentzako egokitu dituzte azken asteotan

MIRIAN BITERI

LEGUTIO

Proiektu erakargarria du mahai gainean Legutioko Udalak: udalerriko herri guztiak lotuko dituen bidegorri sarea osatzea. Egitasmo osoa egin ahal izateko finantzazioa lortzen duten bitartean, dagoeneko egokitu egin dute lehen tarteak: hain zuzen ere, Saindurdi auzoa eta Larrabea ingurunea lotzen dituen zatiarena.

Nekane Garaigordobil alkateak 2,5 kilometro pasatxo dituen tarte horretan egindako lanak azaldu ditu; besteak beste, bide bazterrak garbitu ostean, ibilbidearen bideek zituzten zuloak estali eta asfaltatze lanak egin dituzte, eta baita seinaleak jarri. Bidearen marrak margoitzea baino ez da falta. Bi hilabete inguru eman dituzte Nuño y Pescador enpresako langileek bertan lan egiten, 141.000 euroren truke.

Proiektuak landa guneetako garapen eta sustapenerako Erein programaren laguntza jaso izan duela adierazi du



Ibilbideko seinaleak jarrita daude, bidea margoitzea da falta dena. | MIRIAN BITERI

Garaigordobilek; hain justu, 54.424 euroko laguntza izan du.

Paseorako egokia

Azpimarratu du egitasmo honen bitartez Legutiok eskaintzen dituen natura baliabideak herritarren esku jarri nahi izan direla: "Paseatzeko gunea egokitu nahi izan dugu mendian, oinezkoentzako eta baita txirrindularientzako. Zati honen kasuan, gaine-

ra, paisaien edertasuna aprobetxatu nahi izan dugu".

Esan bezala, etorkizunean udalerrria osatzen duten herri guztiak lotzea da asmoa: Urbina, Goiaín, Urrunaga, Nafarrate eta Elosu. Garaigordobilek, baina, gogorarazi du horretarako diru asko behar dela, eta proiektu orokorra egin aurretik, kanpoko finantzazioa lortzea ezin bestekoa dela.

Ez da Legution azkenaldian egin den obra bakarra. Kultura Etxeko atzealdea ere konpondu dute. Alkateak gogorarazi du "beharrezkoa" zela erai-kinean emergentziazko irteera egitea, eta behin obretan hasita, ingurunearen edertasuna aprobetxatze aldera, behatokia ere egin dutela. Lanak dagoeneko amaituta daude; eserleku bi baino ez dituzte jarri behar.

20 ibilgailuentzako aparkalekua

Kale nagusiaren mozketaren eta Beheko kalean egindako obren ondorioz, aparkaleku asko galdu izan dira azkenaldian Legution. Horri irtenbidea eman nahi dio Udalak, eta botika zaharra parean, 20 ibilgailuentzako aparkalekua egokituko du laster. Burdinola kaletik izango du horrek sarrera, eta Carmen kaletik, irteera. Egunotan esleितuko dituzte lanak, eta urtea amaitu aurretik gura dute aparkalekua erabilgarri izan.



Botika zaharra parean dagoen lurzoruan egingo dute. | M.B.

Basoa, ikasmahaien orde

Ozeta herriko Plisti-Plasta heziketa espazioak urtebete baino gehiago darama abian; umeei naturarekin harreman estuago bat ematea eta haien banakako erritmoa errespetatzen duen pedagogian oinarritzen da ekimena **AITOR ALVAREZ OZETA**



Ekzerretik lehena, Pedro Ferrero Kiribilore Permakultura elkarteko lehendakaria; talde horrek sustatu du Plisti-Plasta. | PLISTI-PLASTA

Plisti-Plasta heziketa espazioak urtebete baino gehiago darama umeei naturarekin harreman zuzena eskaintzen Arabako Ozeta herrian. Gune horretan, bi eta bost urte bitarteko umeek natura beste modu batera bizitzeko eta bertan hezitzeko aukera daukate. Pedro Ferrerok –elkartaren sortzaileetako bat–, ondo azaldu ditu naturan egotearen abantailak: “Haientzat basoa aldatzen doan heinean, naturarekin harremantzeko era aldatzen da; hau da, espazio berean egon arren, aldatu egiten da eta hori oso abe-

rasgarria da”. Ferrero Kiribilore Permakultura elkartearen lehendakaria da; elkarte honek, izan ere, Plisti-Plasta martxan jarri zuen eta proiektua finantzatu eta sustatu egiten du.

“Oso aberasgarria da haurrentzat naturaren aldaketak bizitzea”

PEDRO FERRERO
KIRIBILOREKO LEHENDAKARIA

Goizero 10:00etan elkartzen dira Ozetako poliki-

roldegian umeak eta “bide-lagunak”, begiraleen funtzioa betetzen duten langileak, basoan goiza emateko. Eguneroko jardueretan guztiak batzeko umeak eta jolas librea garatzeko umeak tartekatzen dituzte. Hamaiketako, ekintza proposatua eta ipuina bezalako ekintzak antolatzen dituzte eta, tartean, umeak aske dira nahi dutena egiteko, “haurrek erabakitzen dute nola kudeatu denbora hori, norekin egon; horrela, mundua ulertzeko duten modua eta haien nortasuna garatzen dute”.

Adin desberdinekoak izan arren, batera egoten

16

HAUR GOIZERO

Barrundiako, Mendialdeko eta Gasteizko umeak elkartzen dira astean zehar Plisti-Plastan, basoan hazteko.

dira umeak, lehendakariaren arabera, “elkarrekin egoteak aberastasun handia ematen dielako haien arteko harremanei”. “Izan ere, txikitxoek handiengandik ikasten dute, eredu

direlako haientzat, eta nagusiek txikiak zaindu, lagundu eta erritmo desberdinak ezagutzen dituzte".

Haurren jarraipena egiteko, bilerak egiten dituzte gurasoekin, Plisti-Plastan nahiz etxean gertatzen dena partekatze-ko eta ume bakoitzaren garapenera moldatzeko. Ferrerok berak azaldu duenez, "umea da ardatza eta, alde guztiek baldin bada-kite nola dagoen, egokiago lagundu diezaiokete", etxetik ekartzen dituen ardu-rekin edo Plisti-Plastan bizi izandako egoerekin.

Metodologia berritzaile honen emaitzen harira, ikerketak egin dituzte Alemaniako hainbat eskolatan, ume horiek lehen hezkuntzara heltzean nola moldatzen diren jakiteko. Ferrerok aipatutako ikerketa horien arabera, harreta-gaitasun eta jakinmin handiagoak erakusten dituzte haurrek: "Etxeko lanak egiterako orduan aktiboagoak dira, gatazkak era lasaigo batean konpontzen dituzte, sormen handiagoa erakusten dute eta *istripu* gutxiago dituzte, beraien gorputzaz oso kontziente direlako".

Goizetan txikiekin egiten dituzten jarduerak garrantzitsuenak izan arren, Plisti-Plastak beste hainbat ekintza antolatzen



Guztien arteko jolasak antolatzeaz gain, jolas librea sustatzeko tarteak daude ere. | PLISTI-PLASTA

ditu asteburu gehienetan. Mota askotako ikastaro eta tailerrak egiten dituzte elkartearen ideiak eza-gutzero emateko. "Naturaren parte sentitzeko naturan bizi behar dugu hainbat orduz, asteburuetan gutxienez; naturan egoteari beldurra kendu behar diogu, nahiz eta euria, hotza edota elurra egin, bertan egoteko behar duguna arropa egokia da".

Emaitza "onuragarriak"

Jardunean urtebete baino gehiago egon ondoren, ekimenak ondorio onuragarriak ekarri dituela dio Pedro Ferrerok. Asteazkenean zehar umeekin ikusitako garapena oso baikorra izan dela dio eta heldu bezala ere, oso interesgarria. "Egunez egun naturan egotea,

"Helduontzat, sekulakoa da umeek naturarekin duten harremana bizitzea"

"Naturaren parte sentitzeko bertan bizi behar dugu egunero"

PEDRO FERRERO
KIRIBILOREKO LEHENDAKARIA

basoak eskaintzen duena jasotzea eta umeek naturarekin daukaten harreman hori bizitzea sekulakoa da, benetan barrenetik sentitzen den zerbait".

Etorkizunari dagokionez, ume gehiago, hezitzaile

le gehiago eta familia gehiago izatea gustatuko litzaioke antolatzaileari. Horrekin batera, Plisti-Plastaren ideiak zabaltzeari garrantzia ematen dio ere. Bere hitzetan, Plisti-Plastara doazen haurrek ingurumena hobeto zainduko dute bere etxea basoa izango delako, berea bezala biziko dutelako. "Beti planteatzen dugu nolako planeta uzten diegun gure umei, baina planteatu beharko genuke ere nolako umeak uzten dizkiogun gure planetari. Gure umeek maitasunez bizitzen badute basoa egunez egun edo hilabetez hilabete, planeta ona utziko diegu, haien esku egongo delako hori zaintzea".

INTERNETEN: HIRINET.NET



Haurrek goizero basoan ikasteko aukera dute

PLISTI-PLASTA



Urriaz geroztik ari dira hondeatzeko makinak Trespondeko zubi inguruko sastrakak garbitzen. | PHOTO.OK

Uholdeak saihesteko, zubia garbitu dute Tresponden

Neguko euriteak hasi aurretik amaitu nahi dituzte urrian hasi zituzten lanak

ESTITXU UGARTE @estitxuugarte
TRESPONDE

Neguko euriak hasi baino lehen Trespondeko zubia-
ren gaitasun hidraulikoa
hobetzeko lanak bukatu
nahi dituzte. Urriaz geroztik
hondeatzeko makinak
sastrakak eta oztopoak
kentzen egon dira; bertan
eta zubiaren zutabeetan
harrapatuta zeuden hain-
bat enbor ere kendu dituzte.
Zadorra ibaian gora
metatutako adarrak eta
baso hondarrak ere eza-
batzen ari dira, zubiaren
forma dela eta askotan
geratzen baitira trabatuta.

Halaber, Trespondeko
zubi zuloen inguruko
lohiak eta lokatzak kendu
dituzte jada eta modu hone-
tan urtero gertatzen diren
uholdeak saihesteko nahi
dituzte. Uraren Euskal
Agentziak, Eusko Jaurlar-
itzak eta Arabako Foru
Aldundiak neguko euriak
hasi aurretik zubiaren

edukiera hidraulikoa hobe-
tu nahi dute eta gaitasun
handiagoa bermatu.

Iragan otsailean Iruña
Oka udalerriko Biloda eta
Tresponde herrietan ara-
zo larriak gertatu ziren
ur-jauzien ondorioz Zado-
rra ibaiak gainezka egin
zuelako. Ehunka hektarea
nekazaritza lur ur azpian
geratu ziren eta herrieta-
ra sartzeko bideak ere urak
hartu zituen. Billoda eta
Trespondeko bizilagunek
urteak daramatzate Zado-
rra ibaiak sortzen dituen
arazoak pairatzen eta sarri-
tan eskatu diote adminis-
trazioari konponbideak
jar ditzan.

Langraizeko errepedia

Beste alde batetik 1,9 milioi
euro inbertituko ditu Ara-
bako Foru Aldundiak
A-3309 errepidetik Lan-
graizera sartzeko bidea
hobetzeko, eta Gasteiztik
Langraizera doazen ibil-

gailuak A-2622 errepide
zaharreko bidegurutzean
gelditu behar izateko. Egi-
tasmoan biribilgune berri
bat eraikitzea aurreikus-
ten dute, hain zuzen herri-
ko ikastetxe berriaren eta
kirol gunearen parean.

Gainera, proiektu
honen bitartez, bide berria
egokituko dute eta malda
aldaketa arriskutsu bat
kenduko dute. Bide berriak
zazpi metroko zabalera
izango du eta Zadorra ibai-
ko zubitik aurrera bi
metroko espaloia esku-
ineko aldean, zati horretan
izaten den oinezko zirku-
lazio handiaren segurtasuna
hobetzeko helburua-
rekin. Era berean, Subi-
llabide industrialderako
sarbidea hobetu eta Lan-
graizera ekialdeko sar-
bidea berrantolatuko dute
bigarren biribilgune bat
eraikiz. Proiektu guztia
zazpi hilabetetan amaitu
nahi dute.

La Sebe presa salbatzeko neurriak hartu ditu Aldundiak

E. UGARTE

URIBARRI GAUBEA

Arabako Foru Aldun-
diak premiazko neu-
rriak hartuko ditu
Uribarri Gaubeako La
Sebe presa salbatzeko
eta 68.600 euro zuzen-
duko ditu presaren
lehengoratzeari lehen-
bailehen ekiteko eta
presaren desagertpena
saihesteko. Uribarri
Gaubeako kontzejua
uda aurretik salatu
zuen EAEko egurrezko
presa bakarra betirako
desagertzeko zorian
zegoela. Zaharberritzea
berehala hasi nahi dute
eta urtea amaitu baino
lehen amaituta izango
dute.

La Sebe errotaren
industriaurreko gunea
1781. urtekoa da eta
2005ean erregistratu
zuten lehen aldiz Aña-
nako Kuadrillako onda-
re arkitektonikoaren
inbentario batean.
Bereziki deigarria da
tipologiagatik eta erai-
kitzean erabilitako
materialengatik, eta
2011. urtean Jaurlari-
tzak haren balioa aitortu
eta Kultura Intere-
seko Ondasunen
zerrendan monumen-
tu izendatu zuen.

2005. urtean Ara-
bako Aldundiaren His-
toria eta Arkitektura
Ondarearen Zerbitzuak
urgentziatzeko eraberri-
tze bat egin zuen pre-
saren hondatzea gel-
diarazteko. Haatik,
joan den otsailean
Gaubean izan ziren
euriteen ondorioz ur
korronteak zulo handia
egin zuen presaren egi-
turan eta oso egoera
larrian utzi zuen.

PATRICIA SARATXO FERNANDEZ DE GOROSTIZA

BIARRA EUSKARA ELKARTEKO KIDEA Euskara eta euskal kultura eta ohituren alde lan egiten duten hainbat eragile daude Arabako Mendialdean; tartean, Urbiso herriko Biarra euskara elkarte dago. **MIRIAN BITERI** URBISO

"Gozamena da kaletik umeak euskaraz entzutea"

Zer da Biarra? Arabako Mendialdean dagoen Urbiso herrian euskararen inguruan sortu den taldea da Biarra. Euskararen alde lan egiten duen lagun taldea gara. Dagoeneko hamabost urte pasa dira elkar-
tea jaio zenetik, eta urte horiek guztietan hainbat belaunaldi pasa izan dira; guztiak gogo eta ilusio berdinarekin aritu dira euskararekin eta euskal kulturarekin eta ohiturekin lotutako askotariko ekintzak antolatzen.

Taldearen hasiera horretatik gaur egunera arte, igarri duzue herritarrek euskararekiko duten jarrera aldatu egin dela? Bai, aurrerapausoak eman dira. Azken finean, gure asmoa da euskara kalera-
tzea; bereziki umeekin egiten dugu lan, aisialdian beraien arteko erlazioa euskaraz izan dadin saiatzen gara. Ez dugu nahi hizkuntzaren erabilera ikastola barruan bakarrik geratzea. Urte hauetan egindako lanak merezi izan duela uste dugu; goz-
amena da kaletik zoazenean umeak euskaraz hitz egiten entzutea eta euskararekiko jarrera ere irekia dela igartzea.

Zeintzuk osatzen duzue Biarra? Taldearen profila irekia da eta hortaz, euskaldunak, euskara ikasten dabiltzanak eta hizkuntza ez dakitenak batzen ditu taldeak. Horrez gain, askotariko belaunaldietako lagunak



Patricia Saratxo, pasa den astean. | MIRIAN BITERI

gara; polita da, esaterako, umeak eta aitona-amonak talde berean ikustea. Gure asmoa da euskararen inguruan Urbiso osoa inplikatztea.

Nola funtzionatzen du Biarrak? Urte hasieran, plangintza egiten dugu. Esan beharra

dago, erakunde publikoe-
tatik nahiko laguntza jasotzen dugula; hain justu, Urbisoko administrazio batzarrak, Kanpezuko Ud-
alak eta Diputazioak gurekin bat egiten dute. Horri esker, ekintzak antolatu ditzakegu.

Nolakoak dira azken horiek? Lehen esan dudan bezala, umeentzako egiten dugu lan, eta hortaz, etxeko txiki-
kiei eta familiei zuzendutakoak dira. Euskal kultura oso aberatsa da, eta denetarik antolatzen dugu, hala nola, antzerkia, ipuin kontalaria, jolasak... Aipatzekoa da, zanpantzar txikiak ditugula, eta Urbiso-
ko jaietan, esaterako, 20 bat ume irteten dira joal-
dunetz jantzita. Horrez gain, inguruko mendiak eta ondarea ezagutzeko irte-
rak ere egiten ditugu.

Eta datozen egunotarako zer daukazue prestatuta?

Larunbatean, hilak 12, zinema euskaraz daukagu. Filma ikusiko dugu eta amaitzean, horrekin lotu-
tako tailerra. Bestalde, Gabonetarako ezer gutxi, egun txarrak dira eta bil-
tzeko.

Etorkizunera begira, zein da elkartearen erronka nagusia?

Ametza da Urbison euskaraz bizi ahal izatea. Horretarako egiten dugu lan. Baina, Biarraz gain, Mendialdean ere badaude euskara sustatzeaz ardu-
ratzen diren beste hainbat eragile. Adibidez, bertso eskola edo euskara ikas-
taroak daude eskualdean. Bakoitzak ahal duena egi-
ten du.



Urbisoko jaietan zanpantzarrez jantzita irteten dira etxeko txikienak. | BIARRA



Hezkuntza eskaintza luzatu nahi dute Trebiñun, 12 urte bitartera. | ARGANTZON IKASTOLA

Trebiñuko Lehen Hezkuntza Tuyon eskaini nahi dute

Argantzungo proiektuarekin jarraitzeko ikastola berria abiatu nahi dute 2016-17 ikasturtean

ANAKOZ AMENABAR @anamenabar
ARGANTZUN

Hamabi urte bete ditu Argantzungo ikastolak Haur Hezkuntza eskolekin. Eta, datorren ikasturteari begira, Trebiñuko egitas-

moari jarraipena emateko Lehen Hezkuntza eskaini nahi dute -sei urtetik hamabi urtera arte-. Argantzungo arazo ekonomikoak tarteko, ordea, Tuyon egin nahi dute.

Argantzundik bi kilometrorra dago Tuyu herririka, Añana Kuadrillan, eta hantxe eskaini nahi dituzte Trebiñuko ikastolatik aterako diren haurrentzako eskolak. "Argantzunen

amaitutakoan, familia bakoitzak bere bidea hartzen du, galdu egiten da harremana, pena da, eta egitasmoarekin jarraitzea da asmoa", azaldu du Saioa Urizar Argantzun ikastolako irakasleak.

Argantzunen bertan jarraitzea zuten ametsa, baina arazo ekonomiko larriengatik "ezinezkoa" da bertan LH antolatzea, Urizarrek gogoratu moduan, eta horregatik erabaki dute Tuyora mugitzea. "Tuyo Añanan izanik, diru laguntzetarako aukera dago eta bideragarria izan daiteke egitasmoa; bertako familiak animatu nahi ditugu orain".

Hurrengo urtean eskaini nahi dutenari buruz azalpenak emateko, hurrengo egunetan hainbat hitzaldi eskainiko dituzte inguruetan. Abenduaren 17an, esaterako, hitzaldia izango dute Pobesen, 18:00etan (Etxe Berdean), baina beste batzuk ere izango dira aurrerago. Familia giroko eskaintza, talde txikietakoa eta herriarekiko eta naturarekiko harremana duena nabarmendu dituzte.

**BI
URTE**



Aldabe Plazatxo, 4 GASTEIZ
www.salabaratz.com



18 18:00

**KOLEKTIVO
MONSTRENKO**

"El canto del verdicillo"
+
"Infantil"

Antzerkia/Umorea

MISS OVARIOS 33
kontzertua

6€/8€



19 19:00

PEZ LIMBO

"Boxers"

URTXINTXANDO

"La mar de sueños"

Antzerkia

**COGREACH
AIG BAILE**
kontzertua

6€/8€



20 19:00

KREGO MARTÍN

"To be continued"

+
ORGANIK

"Txapelduna"

Dantza

6€/8€



Askotariko adinetako bisitariak izan ditu Bastidako azokak. | JOSU OLANO

"Arrakastatsua" izan da Arabako Errioxako lehen Disko eta Liburu Azoka

Datorren urtean bigarren edizioa antolatzeke asmoa du Errioxaldea kultur elkarteak

MIRIAN BITERI

BASTIDA

Pasa berri den zubian, Bastidan Erronda jaia egin behar zutela aprobetxatuta antolatu zuten lehen-dabizikoz Arabako Errioxako Disko eta Liburu Azoka; data aukeratu zuenak ez zuen huts egin, oso harrera "ona" izan du-eta ekimenak.

Errioxaldea elkarteak kide Josu Olanok honako balorazioa egin du: "Mugimendua egon da; eta euskaldunetz gain, bestelako herrietarrek ere ibili izan dira azokan. Esan genezake hasierako helburuak bete egin direla; tartean, garrantzitsuena, Arabako Errioxan euskal kulturari eta euskarari bultzada ematea".

"Arabako Errioxan euskal kultura eta euskara sustatzea lortu dugu"

JOSU OLANO
ERRIOXALDEA ELKARTEKO KIDEA

Toti Martinez de Lezea

Azokaren bueltan, askotariko ekintzak izan ziren abenduaren 4tik 8ra. Besteak beste, Toti Martinez de Lezea, Patxi Zubizarreta eta Jasone Osoro idazleek euren azken lanak aurkeztu zituzten bertan. Guztietara jendea hurbildu bazen ere, Martinez de Lezearekin gainezka egin zuen aretoak, eta asko, kanpoan geratu behar izan ziren. Gainerako ekime-

Ken Zazpi

Durango azokan bezala, Bastidakoan ere Ken Zazpi talde bizkaitarraren azken lana izan da salduena, *Phoenicoperus* izenekoa.

netan ere parte hartu zuten bisitariak, hala nola, Eneko Etxegarai idazle eta Eduardo Rodriguez marrazkilari gasteiztarrek *Marixaren baserrian* izeneko ipuin kontaketa edo egunero iluntzean eskainitako filmeetan eta ikus-entzunezkoetan.

Liburu eta diskoen salmentari dagokionez ere pozik daude Errioxaldea elkarteak, "dezente" sal-

du delako. Horren harira, zera azaldu du Olanok: "Azokak eragindako gastuak ordaindu eta soberakin apurrarekin geratuko gara; bestelako ekintzak antolatzeke bideratuko dugu diru hori".

Bigarren edizioa martxan

Datorren urtean ere Arabako Errioxako Disko eta Liburu Azoka izango ote den galdetuta, argi du Olanok: "Bigarrena, dudarik gabe. Eta gugatik izango balitz, hirugarrena eta laugarrena... Lehen aipatu dudana bezala, helburuak bete egin ditugu. Interesgarria izango litzaiteke eskualdeko beste herri batean egitea, baina horretarako ezinbestekoa da erakunde inplikazioa. Landu beharreko gaia da".

Salmentetan, Martinez de Lezea, Zubizarreta eta Osororen eleberriez gain, Bernardo Atxaga eta Xabier Montoiaren lanak ere "oso ondo" saldu direla jakinarazi du Errioxaldekoak; eta musika arloan, Ken Zazpi talde gernikarren azken lana izan da eskatuena.

ARITZA ESCANDON

KULTUR KABIAKO TEKNIKARIA Ikasgelaz harago, haurrak euskaraz sozializatzeko gako batzuk eskainiko ditu datorren ostegunean Oihaneder Euskararen Etxean Aritza Escandonek, Gasteizen egin duen ikerketa bat oinarri. **ITSASO ESTARRONA** GASTEIZ

"Ezin dugu umeen euskalduntze osoa eskolaren esku utzi"

Nola jokatu euskaraz hazitako haur bat etxera gaztele-raz egiten datorrenean? Zer egin dezake euskalduna ez den aita edo ama batek, bere seme-alaba euskaraz sozializatzeko? Nola aritu, bikotean kide bakarra baldin bada euskalduna? Ohikoak dira *kezka linguistikoak* familiar- tean. Horiek abiapuntu, Gasteizen ikerketa egin du Aritza Escandonek (Bilbo, 1977), Topagunea euskara elkarten federa- zioaren Kultur Kabia enpresako kideak, Udalaren Euskara Zerbitzuak eskatuta. Datorren ostegunean, abenduaren 17an, emaitzen berri eman- go du Oihaneder Euskararen Etxean. Era berean, familientzat aholkuak eta baliabide praktikoak eskainiko ditu Udalak webgunean.

Gasteizko hogeitaz gurasorekin hiru ezta- baida talde eta elkarriketa sakonak egin zenituen. Zer kezka azaleratu zituzten aita-amek?

Oso pertzepzio ezberdinak dituzte, euren egoera linguistikoaren arabe- ra. Guk lau multzotan sailkatu ditu- gu: bikotekide biak euskaldunak diren gurasoak; kideetako bat eus- kalduna den bikoteak; biak erdal- dunak diren familiak eta etorkinak.

Has gasteizen bikote euskaldunetatik. Zer egoera bizi ohi dute?

Askotan, nahiz eta gurasoak etxean euskaraz aritu eta seme-alabek ere- du euskaldun batean ikasi, gaztele- raz hizketan iristen dira umeak

eskolatik. Galera moduan bizi izaten dute hori guraso euskaldunek. Hiz- kuntza portaera horretan, pisua du Gasteizko egoera soziolinguistikoak, testuinguru erdaldun batean bizi- tzeak euskaraz bizi nahi izate hori oztopatu egiten duelako. Egoera horren aurrean, garrantzitsua da gurasoen lana: bere hiz- kuntza portaeretan eredu izatea, haurrentzat euskarazko aisialdi- jarduerak aukeratzea, adin berekoen arteko harremanak euskaraz izan daitezen erraztea eta euskara abe- ratsa ematea –ipuina irakurriz, pelikula euskaraz eskainiz...–.

Euskara aberatsa aipatu duzula... guraso asko ez dira ausartzen seme-alabei eus- karaz egitera, euskara "txarra" irakatsi- ko dietelakoan. Nola gaiditu kezka hori?

Ikerketan, batez ere guraso erdal- dunek adierazi dute kezka hori. Batzutan, umearen lehenengo urtee- tan euskaraz egiten diote gurasoek seme-alabari, eta gero, haurrak hiz- kuntza-gaitasun konplexuagoak gara- tu ahala, gaztelarrera pasatzen dira aita-amak, maila horretan euskaraz egiteko gai sentitzen ez direlako. Kasu horretan... erabili dakizuna, asko, gutxi edo hutsaren hurrengoa izan. Hizkuntzarekiko begirunea eta

atxikimendua transmititzen diozu haurrari horrela, eta gainera, eredu- a ematen diozu: *gutxi dakit, baina dakidan hori erabiltzen saiatzen naiz*.

Umeari euskaraz egin arren, aita-ama asko haien artean gaztelera- z aritzen dira. Zer ondorio ditu horrek?

Nik aita erretzailea nuen. Behin, medi- kuak erretze- ari utzi behar ziola esan zion, medi-

kuak berak kriston txokorra erretzen zuen bitartean. Umeekin gauza bera gertatzen da: haiei euskaraz egitea eskatzen badiezu, baina gero zuk ahal duzun egoera guztietan gazte- lerara jotzen baduzu, mezu eta jarre- ra guztiz kontrajarriak adierazten ari zara, eta umeak ez dira tontoak. Euren burmuinean egiten duten lotura hauze da: euskara umeekin egiteko hizkuntza da, baina ez kale- ko edozein egoeratan erabiltzekoa. Zergatik ibili behar naiz ni gurasoen kontrakoa egiten? Ez da eredu lin- guistiko ona.

Zailagoa izaten al da egoera gurasoeta- ko bat baino ez denean euskalduna?

Kide euskaldunek askotan sentitzen dute haien seme-alabekin euskaraz aritzeagatik euren bikotekideek infor- mazioa galtzen dutela. Bestalde, sententzia dute sentitarteko erdaldu- nekiko horma bat jartzeko dutela, ez

Aritza Escandon, Katedral zaharraren plazan.

ITSASO ESTARRONA



direlako elkarrizketaren parte. Euren burua autopresionatu egiten dute, zerbait gaizki egiten dabilzan sentsazioarekin. Eta, egia esan, euskaldunak ez diren kideek normalean ez dute hori sentitzen. Ez dute inkomunikazio sentsazio txar hori izaten, eta are gehiago: kasu gehienetan inbidia eta harrotasuna sentitzen dute umea euskaraz entzutean.

Gasteizen ohikoa da guraso biak erdaldunak izatea. Kasu horretan, zer?

Guraso erdaldunen kasuan, etxean ez dute euskararen transmisiorik egiten, baina umea euskaraz sozializatzeko lan handia egin dezakete, eta aitortu behar zaie. Izan ere, helburua ez da horrenbeste haurren ama hizkuntza euskara izatea eta eskolan eredu euskaldun batean ikastea (hori ere inportantea den arren), baizik eta umea euskaldun haztea, horretarako aukerak eskainiz: eskolaz kanpoko jardueratan, marrazki bizidunen aukeraketan, euskararekiko etxean dagoen jarrean... Alde horretatik, haxe da transmititu behar dugun mezua: eskola bakarrik ez da nahikoa. Bada-go datu interesgarri bat: sei-zortzi urteko ume batek urte osoan esna ematen duen denboraren %15 baino

Abenduaren 17an, hitzaldia

OIHANEDERREN

17:45 Familia bidezko transmisiorako eta sozializatorako gakoak; gurasoen testigantza; eta gurasoentzako tresnen aurkezpena.

ez du eskolan ematen. Zer egiten dugu gainerako %85arekin?

Eta zer gertatzen da iritsi berriak diren familiekin?

Kasu oso ezberdinak daude, baina oro har, guraso etorkinen hurrentzat integrazio faktore inportantea da euskara. Ikerketan, aita kolonbiar batek komentatu zigun berak diskriminazioa bizi izan zuela azalaren koloreagatik, eta ez zuela nahi bere semea egoera beretik pasatzea; azalaren kolorea edozein izanda ere, semea euskalduna zuela.

'Hemengoago'-edo sentiarazten zuen?

Modu inklusiboan ari naiz, bai: euskalduna da euskara duena, jaioterria edozein izanda ere. Faktore integratzailea da.

Etxeko transmisioaz harago, sozializazioaren garrantzia nabarmendu duzu. Zein da aldea?

Transmisioaren kontzeptua goitik beherakoa da: gurasoek hizkuntza bat ematen dizute, eta gurasoek ematen ez dizutenean, eskolak betetzen du funtzio hori. Ordea, gero eta gehiago jo behar dugu sozializazio kontzeptura. Sozializazioa ez da bizitzaren lehenengo urteetan gertatzen den fenomeno, baizik eta bizitza osoan ematen dena, eta ez bakarrik gurasoekin, baizik eta zure adin berekoekin ere. Funtsezkoa da adin berekoen artean garatzen diren hizkuntza portaerak euskaraz izan daitezen saiatzea.

Azken urteetan gehiegi zentratu izan al gara eskolan, gainerakoa ahaztuta?

Nahiko bidegabeak izan gara eskolarekin. Pentsatu izan dugu eskola euskaldunduta umeak euskaldun aterako zitzaizkigula, eta hori parte batean bete da, baina gaitasun komunikatiboak garatzeko bestelako esparruak behar ditugu. Eskolak bakarrik ez gaitu salbatuko. Ez da bidezkoa gure umeen euskalduntze osoa haren esku uztea.

INTERNETEN: HIRINET.NET

BLANKA GOMEZ DE SEGURA

BUZTINGILEA Hori du ogibide Blanka Gomez de Segura bizkaitarrak. Elosuko Ollerietan auzoan dagoen Euskal Buztingintza Museoa gidatzen du; bertan dago Euskal Herrian dagoen antzinako labe bakarra. **MIRIAN BITERI** ELOSU

"Matematikari garrantzia ematen zaio, baina sormenari ez, eta hori akats itzela da"



Blanka Gomez de Segura tailerrean lanean, askotariko artelanez inguratuta. | MIRIAN BITERI

Gorbeialdeko Kuadrillak *Azaro bat sormenaz* izeneko zikloa egin du azken asteotan; besteak beste, Blanka Gomez de Segura (Markina, 1952) buztinlariaren lana gertutik ezagutzeko aukera izan da horretan. Hain justu, Aramaion izan zen azaroaren amaieran bere lanari lotutako xehetasunak eskaintzen.

Azaroaren 26an elkarrizketa publikoa egin zizuten Aramaioko kultura etxean. Besteak beste, sormenaz egin zenuen berba han. Zelan moldatu zinen?

Oso gustura egon nintzen. Euskal Herrian badaude hainbat herri sor-

men handiko proiektu txikiak dituztenak, eta Aramaio da horietako bat. Herri handien sateliteak dira, nekazaritza mundutik industriara joandakoak. Hori horrela dela onartuko bagenu, bertako nortasuna desagertuko litzateke; baina Aramaion jakin izan dute horri buelta ematen; esperientzia txikiak baina adibide handiak dituzte han. Nire lana azaldu nuen, eta sormenaz ere jardun nuen, baina aurretik azalduta beraiek ere sortzaileak direla, eguneroko bizitzari aurre egiteko lortu dutelako auzolanean proiektuak aurrera ateratzen.

Sormena hitza aipatu duzu. Berezkoa da hori edo landu egin behar da?

Kreatibitatea da denok daukagun zerbait. Edozein ume, musika entzuterakoan hasten da dantza egiten, eta agian ez da inoiz dantzaria izango. Edo ume bati, margoa ematen diozu eta margotzen hasten da. Hori berezkoa da. Baina, gero, bizitzan zehar bideratu egiten dugu heziketan; eta uste dut zeramika arloan heziketa nahiko mugatua dagoela. XIX. mendean, industria sortu zenean, ofizioak galtzen joan ziren eta inportantzia askoz ere gehiago ematen zitzaion lantze intelektua-

lari. Burua ipini zen eskuen gainetik; ikerketa horren gainetik jarri zen, eta nire ustez hori heziketarekin dago lotuta. Matematika edo lengoaiari garrantzia asko ematen zaio, baina, sormenari ez; eta etorkizunera begira, akats itzela dela iruditzen zait. Hemendik 50 urtera zer pasako den ez dakigu eta gaur egun hezten ditugun umeei etorkizunera moldatzeko gaitasuna mozten gabilta agian. Bestalde, galdetzen didazu sormena berezkoa den edo landu egin behar den. Nire kasuan egiten dudana da nire kuriositate guztia bideratu eta fokuratu zeramikara; ezezaguna nuen mundu horretan aurretik nituen esperientzia guztiak horretara bideratu nituen. Genioak ere baude, baina orokorrean denok daukagu sortzaile bat barruan.

Sormenaren gaia alde batera utzita, zure bizitzaz egingo dugu berba. Noiztik buztinarekin eta zeramikarekin kontaktuan? Dagoeneko 32 urte daramatzat zeramika munduan. Nik administrazioa eta kontabilitatea ikasi nuen, eta baita delineazioa ere. Hasieran, industria munduan egin nuen lan, baina, gero, nire afizio ofizio bihurtu nuen. Elosuko Joxe Ortiz de Zarate buztingilea ezagutu nuen; badira

"Genioak ere badaude, baina orokorrean denok daukagu sortzaile bat barruan"

"Transmisio horretan amets bat genuen: Ollerietan ogibidea erakusteko eskola sortzea"

32 urte Markinatik Ollerietara etorri nintzela euskal zeramika tradizionalaren ofizioa ikasteko. Aurretik, baina, Arte Eskola jarrita genuen martxan Markinan bertan.

Ofizioa ikasi eta Euskal Buztingintza Museoa ere jarri zenuen martxan. Zer asmorekin zabaldu zenuen?

Hasierako asmoa ez da gaur egun daukaguna. Lehen hamar urteetan egunero etortzen nintzen ikastera. Denbora hartan, Josetxo bikotekidea Markinatik Gasteizera etortzen hasi zen lan egitera. Oso zaila zen mantentzea joan-etorri hori denbora luzez eta nik lanbidea ikasi nuenean eta Joxerekin buztingilearen belaualdia amaitzen zela ikusita, familia guztia hona etortzea erabaki genuen.

Erortzeko zorian zegoen baserria erosi genuen, 1711. urtean sortutako baserria, eta apurka konpontzen hasi ginen. Dagoeneko 23 urte pasa dira museoa zabaldu genuenetik; energia guztia horretara bideratu dugu. Bizitza osoko proiektua da; eta horretan oso kreatiboa izan behar zara, baina dirua galdu gabe. Aurretik Holandan, Belgikan eta Frantzian proiektuak ikusten egon ginen, eta gaur egun ikusten dena ia irudikatuta zegoen: zer egin, nola eta zer epeetan. Eta zer lotu dugu? Museoa bilduma publiko bategaz. Eskerrak hasieran hitzarmenak izan genituela erakunde publikoekin, bestela ezinezkoa izango litzateke. Esaterako, 10.000 lagun debalde onartzen genituen, eta horren truke, 6.000 euro jasotzen genituen.

Ogibidea ezagutzea ematea izango du helburu museoak, ezta?

Bai, hala da. Ezagutaraztea eta transmititzea. Transmisio horretan amets bat genuen, orain dela hamar urte gauzatuta egon behar zena baina aurrera atera ez dena: Ollerietan ogibidea erakusteko eskola sortzea. Modu horretan ez dago gauzatuta, baina erreferentzia tokia izaten dihardu. Gainera, Euskal Herriko Unibertsitatearekin hitzarmena



Gomez de Segura museoko labea ondoan duela; monumentu historiko izendatu dute hori. | M.B.



Astegunetan eta larunbatetan bisitatu daiteke museoa.

M. BITERI

dugu, eta Arte Ederretako ikasleak datoz. Eta etorkizunari begira, ogibidearen egokitzapenaren bueltan, taldea sortzen ari gara.

Kolokan ikusten duzu ogibidea?

Bai. Garai batean, ofizioak desagertzen egon ziren, ez zirelako momentu horretan "premiazkoak". Gaur egun denok konturatzen gara gauzak berriro egin behar ditugula guk geuk, eta autonomoagoak izan behar garela. Prest gaude ikasi nahi duenari gure jakinduria

Museoaren ordutegia

Elosuko (Legutio) Ollerietako auzoan dagoen museoak ordutegi zabala du: astelehenetik ostiralera bitartean, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara; eta larunbatetan, 10:00etatik 14:00etara. Ez da aurretik hitzordua eskatu behar.

emateko. Hori da lortu behar duguna. Kontuan izan orain arte Euskal Herri mailan egon diren bost buztingile profesionalak erretiratzeko hasi direla, eta horiek ez dutela jarraituzailerik. Horri buelta eman behar diogu, eta ez daukagu denbora asko. Aurrekoan Aramaion galdetzen zidaten ea horretatik ahal den bizi... Eta zer egin dut 23 urte hauetan? Bizi, eta pozik bizi, gainera.

Euskal zeramika duzu ardatz. Etorkizuna ziurtatze aldera, horretan aldaketak sartzearen aldekoa zara edo nahiago tradizioari eustea?

Lehenengo lana eginda dago: Ollerietara etorri ginen zegoena berreskuratzeko, hain zuzen, ofizioa, erakina eta izena. Ollerietako *Olla* edo lapikotik dator eta tokia orain dela 1.100 urte dokumentatuta dago. Ahaleginarekin lortu dugu egun duguna, arriskuan badago ere. Bidean egon beharko litzateke kartel handia esaten lekuak horrenbeste urte dituela, eta oster, beti dago zalantza kartela desagertuko den ala ez. Toponimoak oso inportanteak dira etorkizuna oinarritzeko; historiarekin daude lotuta eta ez gara inor horiek desagerrarazteko. Hori esanda, hona etortzean buztingile zahar bati esker berreskuratu genuen azken bost mendeetan egiten zen euskal zeramika tradizionala. Hau da, bertako buztingin gorria, gainetik esmaltea ipinita duela. Industriarekin eta materiala berrien sarrerarekin batera, inork ez zuen zeramika egiten eta desagertu zen; guztiok plastikozko gauzak erabiltzen genituen. Berreskuratzeko lan bat egin genuen formak, izena eta lan egiteko moduaren bueltan. Eta gaur egun zer egin behar dugu? Ba modu naturalean eboluzionatzen joan. Denak eboluzionatu behar du galdu ez dadin; hori bai, oinarria galdu barik. Eta horretan gabilta. Gaur egun gres izeneko materiala gogorarekin egiten dugu lan, esaterako; eta lehenengo buztina 1.000 gradutan erretzen zen, eta gaur egun 1.200 gradutan erreta askoz ere sendoagoa da, eta eskaini ahal diogu Mugaritz edo bestelako jatetxe bati. Erresistentzia izan behar du zeramikak, eta horretarako egokitu behar dugu, baina gutxieneko ezaugarri batzuk galdu barik.

impresion
arte
Serigrafia Publizitatea

Serigrafia
Tanpografia
Inprimatze digitala
Enpresa opariak



**Gabonetako eskaintza bereziak,
enpresa oparietan eta
publizitate euskarrietan**

Avda. del Cantabrico 12, Pab 26 / 01013 Vitoria-Gasteiz
Tel: 945 25 49 32 / Emaila: info@impresion-arte.com
www.serigrafia-impresionarte.es



#JADANIREA



**Samsung Galaxy
Core Prime VE**

Hilean
7'3€
bakarik
ordainduta
BEZ-A BARNE
24 HILABETEZ

Kontratatu euskaltel.com-en | Dendetan | 1717an

euskaltel 

Bi hilabete baino gehiagoko antzinatasuna duten Euskaltelen bezeroentzako eskaintza eksklusiboa.

Babesle teknologikoa:





URBISO

Erik Ruiz de Loizaga

"Artaunsorotik Uitzira, Gasteiztik Izarrara... Zorionak, Erik! Begiiraleak, ieup!".



GASTEIZ

Oihane Urzelai

"Gazte, guapa eta jatorra... seguru mutil guztiak atzetik segika izango dituzula... Jarrai ezazu beti bezain irribarretsu! Zorionak familia guztiaren partez Oihane!".

Norbaiti zure mezua
helarazi nahi diozu?
erredakzioa@alea.eus
625 231 603

ZOZKETAK

Azken zozketetako irabazleak

Sorkun: Kontxi Kerexeta (Gasteiz).

Parral: Ana Lafuente Oraa (Gasteiz).

Zehaztu zozketa eta izen-abizenak:



695 63 28 62



erredakzioa@alea.eus



Errigora saskia

Nafarroako Erriberan euskara eta nekazaritza sustatzeko helburua duen Errigora ekimenaren eskutik, **produktu ekologikoen saski bat** zozketatuko du ALEAK. Eman izena **abenduaren 14a** baino lehen. Hilaren 18ko aldizkarian jakinaraziko dugu irabazlea.



'Monolokos' saioa

Kubik aretoak 'Monolokos' saioa eskainiko du (gaztelaniaz), Iñigo Salinero, Ane Gabarain eta Gorka Aginagalderekin **abenduaren 25ean**, 22:00etan. Sarrera bikoitza eskuratzeko, eman izena **abenduaren 14a** baino lehen, eta 18an jakinaraziko dugu irabazlearen izena.

HITZ GEZIDUNA

	*	▼	Goroto izan	▼	Gauzak, gaiak	▼
	Itsas hegaztia		Pl., hedabide mota		Gipuzkoako herria	
	▶		▼		▼	
	Barrea	▶				
	Zintzarri					
Pl., zuhaitz mota	▼	Segi	▶	▼		
Gipuzkoako ibaia		Hitzarmena				
▶		▼		2 bokal		Bokala
				Bokalik gabeko enara		Ahuntzaren ar
Ur-tanta txikiak	▶			▼		▼
Izariak						
▶						Atx!, otx!
Emakume izena	▶			Sarrera	▶	▼
Bizkaiko ibaia				Bokala		
▶			Ugaztun karraskari	▶	▼	

* Arabako ibaia.

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNA

I	R	U	K	V	A	K	O
A	E	A	T	A	N	E	A
K	V	I	R	R	U	E	N
K	A	T	N	A	T	I	O
A	O	A	O	A	R	I	O
I	A	R	R	A	I		
A	I	R	I				
K	A	O	I	K	A		
E	G	B					

SUDOKUA

8	6	7	2	5	9	1	3	4	6
5	7	1	9	3	4	8	7	6	2
6	2	5	6	1	8	7	3	4	9
4	1	3	8	2	5	6	9	7	1
7	6	2	9	4	1	5	8	3	6
5	9	8	6	7	3	4	1	2	5
6	2	7	3	1	8	9	5	4	7
9	4	5	7	6	2	8	3	1	9
3	8	1	5	9	4	2	7	6	8

GOITIBEHERA

A	I	R	A	S	O	G
A	I	O	R	A	S	
A	O	I	A	S		
A	I	V	S			
A	I	V				
A	I	V	L			
A	I	V	L	V		
A	I	V	L	D	L	V
A	I	V	L	D	V	A

SUDOKUA

				9				6
	4	5			2		3	
	2			1		9		
5	9			7	3			
	6						8	
			8	2			9	7
		6		8			4	
	7		4			1	2	
1				5				

Nola jokatu? 9x9-ko lauki honetako gelaxka hutsak bete behar dituzu, 1etik 9ra bitarteko zenbakiekin; zenbaki bakar bat ere ez da bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, eta ezta dagokion 3x3-ko laukian ere.

GOITIBEHERA

1							
2							
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							

Nola jokatu? Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu behar duzun hitzak.

1. Alda daitekeen zernahi. 2. Barrundiako kontzejua. 3. Atseгина, alaitsua. 4. Lurra iraultzeko lanabesa. 5. Gipuzkoako herria, Urola Kostan. 6. Hegazti mota, putrea. 7. Saiakera. 8. Borda. 9. Goizeko otordua.



ALEA

Sorkun

Gasteiz. Ostirala 11, 21:30ean, Jimmy Jazzen.

ABENDUAK

11

ABENDUAK

17

EUSKARAREN AGENDA

MUSIKA

Toki Eder eta Umandi abesbatzak

Gasteiz. Asteazkena 16, 17:00etan eta 19:00etan, Dendarabako aretoan.

Armentia eta Armentia Txiki abesbatzak

Gasteiz. Osteguna 17, 18:45etan eta 20:15etan, Dendarabako aretoan.

Mor More

Gasteiz. Osteguna 17, 19:30ean, Oihaneder Euskararen Etxean.

BERTSOLARITZA

Berto afaria

Gasteiz. Ostirala 11, 21:30ean, Salburua auzoko Tic Tac tabernan. Fredi Paia eta Iñaki Viñasprekin.

'Itsasoaren emazteak' ikuskizuna

Gopegi. Larunbata 12, 19:00etan, Zigoitia aretoan.

Oinkari dantza taldea eta Hika antzerki taldearen eskutik.



ALEA

'Kapulana bat zintzilik', emanaldia

Aramaio. Larunbata 12, 19:00etan, kultur etxean. Miren Amuriza bertsolariarekin.

DANTZA

'Ilunabarrean dantzan'

Gasteiz. Ostirala 11, 20:00etan, Oihanederren. Europako eta Euskal Herriko dantzak eta musika zuzenean.

HAURRAK

'Ene kantak' ikuskizuna

Gasteiz. Ostirala 11, 18:00etan, Elkar dendan. Ene

Kantak proiektuaren DVD berria aurkezteko ikuskizuna.

'Gure aitona amonon jolasak' tailerra

Azilu. Larunbata 12, 16:30ean, gizarte etxean.

'Bidaia bizitzen' ikuskizuna

Laudio. Larunbata 12, 17:30ean, La Milagrosa ikastetxean.

'Maddi eta txalaparta', ipuina

Gasteiz. Astelehena 14, 18:00etan, Aldabe gizarte etxean. 4-10 urte artean.



ALEA

'El Cascanueces' balleta

Gasteiz. Osteguna 17, 20:30ean,
Principal antzokian. Tbilisiko opera eta

balletaren (Georgia) eskutik, *El Cascanueces* balleta helduko da Gasteizera, gabonetako ekitaldien

artean. Tchaikovsky-ren fabula magiko honetan, Gabon gauean bizitza hartuko duten jostailuak dira protagonista.

HITZALDIA

'Euskara oparitu' hitzaldia

Gasteiz. Ostirala 11, 17:30ean, Salburuko gizarte etxean. Euskarazko produktuen katalogoa aurkeztuko dute.

'Familia bidezko euskararen transmisioa'

Gasteiz. Osteguna 17, 17:45ean, Oihaneder Euskararen Etxean. Kultur Kabia zerbitzuetako arduradun Aritza Escandonekin.

BESTELAKOAK

Herri kirolak

Heredia. Igandea 13, 11:00etan, herriko plazan. Erakustaldia eta ikastaroa izango dira.

Hitz adina mintzo. Galesera

Gasteiz. Astearte 15, 19:00etan, Oihanederren. Patrick Carling soziolinguistaren eskutik.

Irakurle Kluba

Gasteiz. Osteguna 17, 20:00etan, Ignacio Aldekoa kultur etxean. Birgit Vanderbekerren *Muskulua* *afaltzeko* izango dute solasgai.

BESTE HITZORDU BATZUK

MUSIKA

Chicago Mass Choir

Gasteiz. Larunbata 12, 20:30ean, Principal antzokian.

The Priscillas eta The Dealers

Gasteiz. Igandea 13, 19:30ean, Gora Project tabernan.

Andrea Turini piano-jotzailea

Gasteiz. Astearte 15, 20:00etan, Dendaraba aretoan.

ANTZERKIA

'Constelaciones'

Gasteiz. Ostirala 11, 20:30ean, Hegoalde gizarte etxean.

'Sinergy'

Gasteiz. Larunbata 12, 19:30ean, Ibaiondoko antzokian.

HITZALDIA

'El milano real'

Gasteiz. Osteguna 17, 19:00etan, Atarian Gorka Belamendia teknikariarekin.



SOLAS ALEAN txikia

VITORIA
GASTEIZ
green capital

Abenduak 18, ostirala
Oihaneder Euskararen Etxean

*zator eta bota
zure galdara!*

16:30 Familientzako Gabonetako apaingarrien tailerra
Izena eman: oihaneder@oihanedereuskararenetxea.eus

18:30 Olentzero eta Maridomingirekin
umeentzat elkarrizketa irekia



Gidaria:



Antolatzailea:

www.oihanedereuskararenetxea.eus



OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA
SOSLIZKO KARRI ANTZOKIA



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala